KURSAAL ESZENA

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Abendua / Diciembre
Larunbata **05** Sábado / **16:00** / **19:15**
Auditorio **Kursaal** Auditorioa

# "HESIA URRATURIK"
## Xabier Lete in memoriam

Bakarlari, abesbatza eta orkestrarentzako oratorioa

(Estreinaldia)

**Joxan Goikoetxea,** egilea
**Juanjo Ocón,** zuzendaria

**Landarbaso Abesbatza**
**Iñaki Tolaretxipi,** abesbatza zuzendaria

**Kaabestri Ensemble**

**Miren Urbieta-Vega,** sopranoa
**Beñat Egiarte,** tenorra
**Anne Barron,** haur bakarlaria

**Eñaut Elorrieta, Maite Larburu,** abeslariak

**Enpresa Elkartua /** Empresa Asociada:

**Babesleak /** Patrocinadores:

**Laguntzaileak /** Colaboradores:

**Enpresa Elkartuak /** Empresas Asociadas:

**Komunikabide Elkartuak /** Medios Asociados:

# Programari buruzko oharrak

**"Hesia urraturik"** Joxan Goikoetxeak Xabier Leteren oroimenez eta haren 10. heriotza urteurren ospakizunerako idatzi duen Oratorio sinfoniko-korala da, Leteren testu eta melodia bilduma berreraikitzen duen alegoria musikala.

Leteren unibertso poetiko eta musikala sinfonia-arlora gerturatzeko asmoa ez da berria; Donostiako Musika Hamabostaldiaren zuzendariak iradoki zuen bere garaian, 90. hamarkada bukaeran hain zuzen, Benito Lertxundiren *Auhen Sinfonikoa* diskoaren arrakasta ikusirik. Baina, ordu hartan, Leteren gaixotasun akigarriak baztertu egin zuen egitasmoa automatikoki. Orain ordea, Joxan Goikoetxeak, Leteren musikari-kolaboratzaile eta lagun minak berpìztu egin nahi izan du ideia, Oiartzungo poetari promesa eta eskertza moduan:

*"… Hasieratik izugarri erakartzen ninduen ideia, obrari Oratorio musikalaren egitura ematekoa zen. Banekien Xabierren lanetako testuetan oinarritutako musika idazteak liturgikoa ez zen Oratorioa zeramala bere baitan nahitaez. Zernahi gisaz, haren formatuari neritzon egokia izpiritualtasun giroa gauzatzeko, poesia- eta musika-ibilbide gisako zerbait helarazi nahi bainuen; filosofia -eta estetika- pentsamoldean, Xabierren bizitzako zenbait aldi eta alderdi biziberritzera eta barneratzera mugi gintzakeen bidea. Eta baita haren kezkak, zalantza existentzialak, aberria. nostalgia, pasioa, fedea, etsipena, elkartasuna, adiskidetzea, babesa, maitasuna, salbazioa, itxaropena…ere.*

*Izan liteke, bizitzako aldien antzera, obraren ataletan, denbora-antolatzea suma liezaiokeenik. Orobat, Meza baten zatien hurrenkera duelako itxura hartuko liokeenik… Ez bata, ez bestea, eta biak izan litezke aldi berean, subkontzientetik eragin didatenak. Baina inoiz ez da nire asmoa izan haren ibilbidera eta aldietara modu osoan hurbiltzea. Hori lortzea, iraupenak iraupen, ezinezkoa da horrelako obra batean. Obraren atalak 13 izateak ere nabarmenkeria lirudike. Izan liteke… Hasieratik oso argi neukan ez nuela Leteren abestien begi bistako berrarmonizatze soil edo instrumentatze sinfonikoa egin nahi. Hori Xabierrek berak baztertu zuen bere garaian. Zenbait kasutan egin dudana, normala den bezala, melodiarik ez zuten testuentzat melodiak sortzea izan da. Beste zenbaitetan, berriz, "dekonstrukzio prozesua" deitu diodan teknika erabili dut: dagoeneko badauden testu eta melodiak zatikatzen, eraldatzen eta batzuk besteekin gurutzatzean datzan teknika…"* dio **Joxan Goikoetxea** berak.

13 atalez osatua dago Goikoetxeak gorpuztu duen oratorioa, eta barne kezkak, pasioa, fedea, etsipena, maitasuna, elkartasuna, adiskidetzea, edo babesa bezalako zalantza existentzialak inork gutxik bezala adierazteko gaitasuna izan zuen Xabier Leteren pentsamendu eta imajinario filosofiko-estetikoan sakondu eta horiek gogora ekartzeko gonbidapena da.

Azken urteotan estreinatua izateko saiakera eta ekimen ugari izan dituen proiektu honek, orain, Landarbaso Abesbatzako zuzendari den **Iñaki Tolaretxipi** ere bidelagun du. Errenteriako abesbatza heldutasun aldi bikainean dagoen formazioa da, eta azken urteotan Joxan Goikoetxea behin baino gehiagotan aritu izan da abesbatza honekin elkarlanean.

Nola Goikoetxeak hala Tolaretxipik, **Juanjo Ocón** maisu donostiarraren esku jarri nahi izan dute **Kaabestri Ensemble** orkestra eta **Landarbaso Abesbatza** gidatzeko ardura. **Miren Urbieta-Vega** sopranoaren eta **Beñat Egiarte** tenorraren partehartzeak ere azpimarragarriak dira, 75 minutu inguruko iraupena duen obra honen gauzatzean.

*"Xabierrek esaten zuen leialtasuna gure gizartean modatik joanda zegoela, baina harentzat oso garrantzitsua zela batez ere sentimenduetan, sinesmenetan, usteetan eta pentsamoldean. "Egunsentiaren esku izoztuak" liburuan, 2009ko otsailaren 26an, idatzi zidan eskaintza gogo biziz daramat landaturik bihotzean: "Joxan Goikoetxea adiskide leial eta lankide prestuari, bizitzaren poz eta zaurietatik sortutako poema hauek. Bihotz-bihotzez." Leialtasun sentimendu horrek ezin ihartuzko eran iraun dezan nire izpirituan, eta bizitzako ibilbidean gida nazan"*. dio bukatzeko Goikoetxeak

# Notas al programa

**Hesia urraturik** es el título del Oratorio sinfónico-coral escrito por **Joxan Goikoetxea** para conmemorar el 10º aniversario del fallecimiento de **Xabier Lete**; una alegoría musical que reconstruye una cuidadosa selección de sus textos y melodías.

La idea de acercar el universo poético-musical de Lete al terreno sinfónico no es del todo nueva; la Quincena Musical de San Sebastián ya la sugirió a finales de los años 90, después del éxito cosechado por Benito Lertxundi con su disco *Ahuen sinfonikoa.* Pero el condicionante de la extenuante enfermedad de Lete desechó casi automáticamente dicha idea. Unos cuantos años más tarde es Joxan Goikoetxea, músico colaborador y amigo personal de Lete, quien ha retomado el proyecto a modo de promesa y agradecimiento al malogrado poeta de Oiartzun:

*"…Algo que desde el principio me atraía mucho era la forma musical del Oratorio. Aún siendo consciente que el hecho de escribir y adaptar la música de la obra sobre textos de Xabier me llevaba a dar forma a un Oratorio no litúrgico, me seguía pareciendo el formato idóneo para plasmar la espiritualidad y el ambiente que quería transmitir, en una especie de itinerario músico-poético que nos invitara a revivir y ahondar en distintos aspectos y etapas del pensamiento e imaginario filosófico-estético de su vida, así como en sus inquietudes y dudas existencialistas: pasión, fe, desesperación, patria, nostalgia, amor, solidaridad, reconciliación, redención, esperanza…*

*Hay quien puede adivinar un orden temporal en las distintas partes de la obra, de modo similar a las fase de la vida… Hay quien puede entrever paralelismos con las partes de una Misa… Nada de ello y un poco de todo puede haberme influenciado desde el subconsciente. Lo que en ningún momento ha sido mi intención es ofrecer una visión o aproximación integral o total a su trayectoria, fases y etapas. Eso es sencillamente imposible en una única obra de estas características, por muy extensa que ésta sea. El hecho de que la obra tenga 13 partes también puede parecer un capricho. Puede ser… Desde un principio tenía muy claro que lo que no quería hacer era una obvia y simple rearmonización o una instrumentación más sinfónica de las canciones de Lete. Eso ya lo había descartado el propio Xabier. En algunos casos y como es normal, he creado nuevas melodías para textos que no lo tenían. En otros casos he utilizado lo que he querido llamar técnica de "deconstrucción" musical, desmembrando, transformando y cruzando textos y melodías preexistentes.."* explica el propio Joxan Goikoetxea.

El Oratorio creado por Goikoetxea consta de 13 partes, y nos invita a revivir y ahondar en distintos aspectos y etapas del pensamiento e imaginario filosófico-estético de un artista, Xabier Lete, que supo plasmar como pocos sus inquietudes y dudas existencialistas: pasión, fe, desesperación, patria, nostalgia, amor, solidaridad, reconciliación, redención, esperanza…

Este proyecto que, durante los últimos años, ha conocido distintos intentos e iniciativas de ser estrenado, cuenta ahora con el apoyo e impulso de **Iñaki Tolaretxipi**, director de Landarbaso Abesbatza, agrupación coral de Errenteria que se ve inmersa en un inmejorable estado de madurez y con la que Goikoetxea viene colaborando asiduamente.

Tanto Goikoetxea como Tolaretxipi han querido confiar la importante tarea de dirigir la orquesta **Kaabestri Ensemble** y el coro **Landarbaso Abesbatza** al maesto donostiarra **Juanjo Ocón**. La participación de la soprano **Miren Urbieta-Vega** y el tenor **Beñat Egiarte** son también reseñables en la materialización de esta obra de unos 75 minutos de duración.

"Solía decir Xabier que la lealtad es una virtud que en nuestra sociedad había pasado de moda pero que para él resultaba muy importante sobre todo el hecho de que tal lealtad perdurase en los sentimientos, en las creencias, en las convicciones y en el modo de pensar. Guardo con especial fervor la dedicatoria del libro "Egunsentiaren esku izoztuak" que me escribió Xabier el 26 de febrero de 2009: "Joxan Goikoetxea adiskide leial eta lankide prestuari, bizitzaren poz eta zaurietatik sortutako poema hauek. Bihotz-bihotzez." (A Joxan Goikoetxea, amigo fiel y trabajador serio y honrado, estos poemas que dimanan de las alegrías y penas de la vida. De todo corazón). Con el firme propósito de que tal sentimiento de lealtad perdure en mi espíritu y me guíe en la vida", dice para concluir Goikoetxea.